

OIA RTZUN

Udaberri Jaia ospatuko da, bihar

Aurten, Ramon Sagarzazu 'Ramontxo' izango da txotx irekiera egingo duena

24.05.13 - 00:04 - GOIZARIN | OIA RTZUN.

Urtero legez, maiatzeko azkeneko asteburuan etorriko da aurtengo udaberri jaia, XXIV. Sagardo Eguna. Bihar izango da aurtengoa eta aldaketa eta sorpresa bat baino gehiago izango ditu bere baitan.

«Aurtengoan egun guztiko jaia antolatu dugu Girizia Elkartearen eta Oiazungo Herrira mugimenduaren, Oiazungo Udalaren eta herriko tabernen eta komertzioen laguntzarekin. Egun guztiko egitarau berezi eta oparoa prestatu nahi izan dugu oiaztuar guztientzat» adierazi dute AEKko arduradunek.

Goizetik hasiko da festa, artisau azoka izango baita 10:00etatik 13:00 bitartean Doneztebe plazan. Baina kaleak girotzeko bertsolariak ere izango dira goizean zehar. Astoa eta gurdia gidari hartuta, Ander Lizarralde 'Erretxiki' eta Arkaitz Oiar-tzabal 'Xamoa' ibiliko dira Elizaldeko kaleetan zehar giroa alaitzen. «Gurdiaren atzetik ibiliko direnei baserriarrez edo zapia eta txapela jantzita bertaratzeko» dei berezia egin diete.

Sagar tarta lehiaketa

Gero, eguerdiko 12:00etan sagar tarta lehiaketako epaileak lanean hasiko dira. Parte hartu nahi dutenek 12:00ak baino lehen eraman beharko dituzte tartak Kontsejupean jarriko den postura. Hala ere, «aurretik izena ematea eskatu nahi diegu interesa dutenei, horrek antolatzaileen lana erraztuko baitu». Izena emateko Oiazun Irratiko kideekin jarri behar da harremanetan, 943 49 37 11 telefono zenbakira deituta edo oiazzunirratia@gmail.com helbidera izen abizenak bidalita. Oiazungo sagar tarta goxoenak sari bikainak eskuratzeko aukera izango du. Epaimahaia herriko eragile desberdinetako kideek eta gozogleek osatuko dute.

Sagar tarta lehiaketaren ondotik, 12:30ean ekingo zaio sagardo kata profesionalari. Enologo baten eskutik, sagardo on baten sekretuak deskubritzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Arratsaldean, berriz, Euskal Herria plazan haurrentzako puzgarriak, tailerrak eta txokolatada izango dira Ttakek antolatuturik, 17:30etik aurrera.

Urtero bezala, arratsaldeko 18:00etan emango zaio hasiera sagardo dastaketari. XXIV. Sagardo Egunari hasiera emango dion herritarra Ramon Sagarzazu 'Ramontxo' izango da. Iazko abuztuan aterata zen Ramontxo espetxetik eta berak izango du lehen sagardo tragoa edateko ohorea. Aurtengoan 17 sagardotegiko sagardoa probatzeko aukera izango dute Oiazuna hurbiltzen direnek.

Erromeria Kataxulon

Ez da sagardo dastaketarekin amaituko eguna, izan ere azken urtetan egin ez den arren «afaria antolatu dugu Girizia Elkartearen», 21:00etatik aurrera. Txartelak ohiko lekuetan daude salgai, 18 euroren truke. Eguna borobiltzeko, 23:00etatik aurrera Kataxulo Gaztetxean kontzertuak eta erromeria izango dira.

«Girizia Elkartetik eta Oiazungo Herrira mugimendutik eskerrak eman nahi dizkiegu aurtengo Udaberri Jai eta Sagardo Egun hau antolatzen laguntzen ari diren guztiei. Aldi berean, oiaztuarrek eta inguruko herrietako jendea gonbidatu nahi dugu maiatzaren 25ean parte har dezala antolatutako jai eder honetan. Hogeita laugarren edizio honek, mende laurdena betetzeko indarra eta ilusioa emango dizkigulako» azpimarratu dute.

TAGS RELACIONADOS

udaberri, jaia, ospatuko, bihar

Publicidad



El nuevo iPad - €17.90?

Compradores españoles consiguen hasta un 80% de descuento usando un sorprendente truco

www.megabargains24.com



Masters Online

Máxima flexibilidad, máxima cercanía. Compágnalo con tu trabajo www.udima.es



Ahorra hasta 248 euros

Contrata ahora tu seguro de coche a medida con Direct Seguros

www.directseguros.es



Máster en RRHH al 50%

Ultimas Plazas en EUDE, consigue tu beca !!

www.eude.es

pen

Boston Medical Group puede ayudarte. Con total privacidad y con solo una consulta.



Para poder comentar debes estar [registrado](#)

[Añadir comentario](#)

Iniciar sesión con [t](#) [b](#) [f](#)

[Regístrate](#)



Escribe aquí tu comentario.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)

Ordenar por los más recientes primero

Mostrando 0 comentarios

[Suscríbete por e-mail](#) [RSS](#)

Powered by SARENET



© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª C.I.F.: B20677878
Domicilio social en Camino de Portuebe, 2 San Sebastián 20018
Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com
Copyright © Digital Vasca S.L. , San Sebastián. , 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

[Contactar](#) | [Mapa Web](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Master El Correo](#)

ENLACES VOCENTO

[ABC.es](#)
[El Correo](#)
[Elnortedecastilla.es](#)
[Elcomercio.es](#)
[SUR.es](#)
[Qué.es](#)
[La Voz Digital](#)
[ABC Punto Radio](#)
[hoyCinema](#)
[Infoempleo](#)
[Autocasion](#)
[Mujerhoy](#)
[Vadejuegos](#)
[Grada360](#)

[Hoy Digital](#)
[La Rioja.com](#)
[DiarioVasco.com](#)
[Ideal digital](#)
[Las Provincias](#)
[El Diario Montañés](#)
[Laverdad.es](#)
[Finanzas](#)
[hoyMotor](#)
[Guía TV](#)
[11870.com](#)
[Pisos.com](#)
[Avanzaentucarrera.com](#)
[m.diariovasco.com](#)